



ESKOLA BATZARREKO ERABAKIEN ZIURTAPENA ETA ARGITARATZEKO AGINDUA

BATZARRAREN DATA: 2014ko apirilak 9

EDURNE SEIJO HERNANDORENAK, UPV/EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoko Idazkariak, hurrengoa

ZIURTATZEN DU

2014ko apirilaren 9ko Ohiko Eskola Batzarrean hurrengo **ERABAKIAK** hartu direla:

- 1.- Arkitekturaren Oinarrietako Graduaren Gradu Amaierako Lanaren Arautegia onartzea
- 2.- Arkitekto lanbiderako gaitzen duen Masterraren hasierako dokumentua onestea
- 3.- 2014-2015 ikasturterako Espedientea Lekuz Aldatzeko Araudia onartzea
- 4.- 2014-2015 ikasturterako Karrera Amaierako Proiektuaren Egutegia onartzea
- 5.- Zuzendaritza egin dituen kontsultei emandako erantzunak ikusita, Graduako 3. mailatik 4. mailara igarotzeko Planean ageri den murrizketa aldatzeko proposamena bai eta matrikulazioa 60 kreditura mugatzeko, lehenengo lauhilabetean gainditutako kredituen arabera bigarren matrikula egiteko aukera eskainiz, proposamena ere Ikastegiko Planaren Batzordeak birplantea dezala adostu da. Hortaz, proposamenaren onespena hurrengo Eskola Batzarrean edo Batzorde Iraunkorrean aztertzea adostu da.
- 6.- Unibertsitate Kontseiluan gure Graduari Master maila (3 maila) esleitzeko eskaera egiteko Ikastegiko Ikasketaren Batzordearen proposamena onartu da.

Erabaki hauek Ikastegiko iragarki-taulan eta ohiko baliabide informatikoen bitartez argitaratuko dira.

Ziurtagiri honi hurrengo **ERANSKINAK** atxiki zaizkio:

- 1 **ERANSKINA** (Arkitekturaren Oinarrietako Graduaren Gradu Amaierako Lanaren Arautegia)
- 2 **ERANSKINA** (Arkitekto lanbiderako gaitzen duen Masterraren hasierako dokumentua)
- 3 **ERANSKINA** (2014-2015 ikasturterako Espedientea Lekuz Aldatzeko Araudia)
- 4 **ERANSKINA** (2014-2015 ikasturteko KAPren egutegia)

Donostian, 2014ko apirilaren 11n

Izp.:Edurne Sejo Hernandorena
AGETeko Idazkari Akademikoa

GRADU AMAIERAKO LANARI BURUZKO ARAUTEGIA

2014ko apirilaren 9ko Eskola Batzarrean onartua

1 ERANSKINA

0.- HITZAURREA.

Arkitekturako Graduaren ikasketa planak, 2010ekoak, ezartzen zuen ikasgelako 300 ECTS kreditu egiteaz gain, Gradu Amaierako Lan (aurrerantzean GRAL) bat ere egin behar zela, hain zuzen ere, 30 ECTS kredituko karrera amaierako proiektu bat.

2010eko uztailaren 29ko Ministro Aginduak Arkitekturako Gradua (330 ECTS kreditukoa eta lanbidean jarduteko gaitzen zuena) kendu eta horren ordez Arkitekturaren Oinarrietako Gradua (300 ECTS kreditukoa eta lanbidean jarduteko gaitzen ez duena) gehi gaitasun master bat (60 ECTS kreditukoa) ezartzera behartu zuenean, karrera amaierako proiektua, GRALaren baliokidea zena, gaitasun master horren zati izatera pasatu zen graduan nahitaez GRAL bat egin behar zela ezarri zen, gutxienez 6 ECTS kreditukoa.

Ikasketa plana asko ez aldatzeko, Arkitekturako Gradu Proiektuak irakasgai multzoko azken irakasgaiko 9 ECTS kredituak aldatzea erabaki zen (Proiektuak X, oinarrizko proiektu bat egitea helburu zuena), eta horiek Arkitekturaren Oinarrietako Gradu berriko GRALean sartzea.

Horregatik, eta GRALa oinarrizko proiektutzat hartzen delako, logikoa da Gradu Amaierako Lan hau gidatuko dutenak Arkitekturako Proiektuak irakasgai multzoko irakasleak izatea.

1.- SARRERA.

Arautegi honek Arkitekturaren Oinarrietako Graduan zehaztutako GRALak definitu, egin, matrikulatu, aurkeztu eta izapidetzeko irizpideak jasotzen ditu.

GRALa gauzatzeko, ikasle bakoitzak, banaka, oinarrizko arkitektura proiektu bat egin behar du, eta bertan graduako ikasketa aldian era horretako proiektuetarako landu diren gaiak bildu eta garatuko dira.

GRADU AMAIERAKO LANARI BURUZKO ARAUTEGIA

2014ko apirilaren 9ko Eskola Batzarrean onartua

Behin aurkeztutakoan, GRALa epaimahai batek ebaluatuko du, titulazioko gainerako irakasgai guztiak gaindituta edukiz gero.

2.- IZENA EMATEA, MATRIKULA EGITEA ETA DEIALDIAK.

GRALa egiten hasi baino lehen, ikasleak lanerako izena eman beharko du eta izena ematerakoan, gaia, hizkuntza eta zuzendaria aukeratu beharko ditu.

GRALerako izena emateko, ikasleak matrikula eginda eduki beharko du GRALari dagozkion kredituetan izan ezik, gradua amaitzeko geratzen zaizkion gainerako kreditu guztietan.

GRALerako izen ematea GAUR aplikazioaren bidez egingo da lauhileko bakoitzaren hasieran, ikastegiak ikasturte bakoitzerako ezarritako epeen barruan. Behin izena emandakoan, epaimahaiak baliozkotzat joko ditu aukeratutako gaia eta zuzendaria.

GRALaren matrikula horretarako ezarriko den epearen barruan egingo da, graduko gainerako kredituak (291 ECTS kreditu) gainditu ondoren.

Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte akademiko bakoitzerako ezarritako lau deialdietatik bitara aurkezteko, betiere, ezarritako egutegiaren arabera, ikasleak matrikula egiten duenean ikastegian defentsarako aldirik irekita baldin badago. Lana ezarritako deialdietan gainditu ez duen ikasleak berriro egin beharko du matrikula berriz aurkezteko eskubidea izateko.

GRADU AMAIERAKO LANARI BURUZKO ARAUTEGIA

2014ko apirilaren 9ko Eskola Batzarrean onartua

3.- METODOLOGIA.

GRALa banaka egingo da eta Arkitekturako Proiektuak irakasgai multzoko irakasleen artetik aukeratutako zuzendari batek gainbegiratuko du. Zuzendariaren aukeraketa zuzendariarekin berarekin adostuko da, eta adostasunik egon ezean, ikastegiak berak jarriko du zuzendaria.

Epaimahaiek, ikasturte bakoitzaren hasieran, GRALa egiteko 3 gai proposatuko dituzte (graduako minor bakoitzera bideratutakoa), eta ikasleak horietako bat aukeratuko du berak lanean garatzeko.

Epaimahaiek ikasleek eurek izena emateko aldiari proposatutako gaiak ere onartu eta baliozkotzat jo ahal izango dituzte, betiere, laneko zuzendariarekin bat etorrita.

Mugikortasun programen barruan egindako GRALak ere arautegi honetan ezarritakoari lotuko zaizkio. Gaia adierazitako epeen barruan erregistratu beharko da eta GRALeko epaimahai batek baliozkotzat jo beharko du. Lanak zuzendari bat izan ahalko du kanpoko ikastegian, baina, betiere, jatorrizko ikastegian Arkitekturako Proiektuak irakasgai multzoko irakaslea den zuzendarikide bat izan beharko du. Bukatzeko, ezarritako epeen barruan matrikula egin ondoren, ikasleak ikastegiko GRALeko epaimahai baten aurrean aurkeztu beharko du bere GRALa, epaimahai horrek ebaluatu dezan.

Landuko diren gaiek lana egingo den ikasturterako balioko dute.

GRALaren zuzendariak txosten bat aurkeztu beharko dio kasuan kasuko epaimahaiari ikasleak lana jendaurrean defendatu baino lehen. Txosten hori GAUR aplikazioa erabiliz aurkeztuko da.

GRADU AMAIERAKO LANARI BURUZKO ARAUTEGIA

2014ko apirilaren 9ko Eskola Batzarrean onartua

4.- EPAIMAHAIK.

GRALa Proiektuak irakasgai multzoko hiru irakaslek osatutako epaimahai batek ebaluatuko du. Bi epaimahai eratuko dira ebaluazioa bi hizkuntza ofizialetan egin ahalko dela bermatzeko.

Salbuespen modura, epaimahaiak ikastegikoa ez den irakasle bat edo izen handiko profesional bat ere gonbidatu ahal izango du.

GRALetako epaimahaiak eskolako zuzendaritzak proposatu eta Eskolako Batzarrak (edo Batzarraren Batzorde Iraunkorrak) izendatuko ditu. Epaimahai bakoitzerako kideak izendatzeaz gain, kide horietako bakoitzaren ordezkoa ere izendatuko da.

Epaimahai bakoitzean epaimahaiburu bat, idazkari bat eta epaimahaikide bat egongo da. Epaimahaiburua eta idazkaria izendatzeko irakasle kategoria eta antzintasuna hartuko dira kontuan.

5.- GRADU AMAIERAKO LANAREN DEFENTSA.

Matrikula egindakoan, ikasleak GRALa ikastegiko idazkaritzan aurkeztuko du. Gaia bat etorri beharko da gai zerrendan adierazitakoarekin bat eta lana ikastegiak ezarritako epeen barruan aurkeztu beharko da.

Lanen egileek aurrez aurre defendatu beharko dituzte beren lanak epaimahaiak ezarritako egunetan.

Defentsa gaintzen duten GRALen kopiak UPV/EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoko KAP eta GRALen artxiboan gordeko dira euskarri informatikoan.

GRADU AMAIERAKO LANARI BURUZKO ARAUTEGIA

2014ko apirilaren 9ko Eskola Batzarrean onartua

6.- JABETZA INTELEKTUALA.

GRALa jabetza intelektualari buruzko legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duena izango da, GRALa esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera.

7.- EBALUAZIOA, KALIFIKAZIOA ETA ERREKLAMAZIOAK.

GRALak aurkeztu ondoren, epaimahaiek lanak ebaluatu eta kalifikazioak argitaratuko dituzte.

Gradu amaierako lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraiki egingo dira baina epaimahaia tartean dagoenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du eta ondoren ikastegiko Erreklamazio Batzordeak emango du ebazpena; ebazpen horren kontra errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio unibertsitateko errektoreari.

ARKITEKTURAKO GAITASUN MASTERRAREN

PROPOSAMENAREN LABURPENA

2014ko apirilaren 9ko Eskola Batzarrean onartua

2 ERANSKINA

MEMORIA

Arkitektura Goi Eskola Teknikoak Arkitekturaren Oinarrietako Gradua edo horrekin homologatu daitekeen beste edozein titulu eskuratu dutenei zuzendutako gaitasun masterraren memoria aurkezten du.

A.- PARTE HARTUKO DUTEN ENTITATEAK.

Masterrean parte hartuko duten entitateak honako hauek dira:

- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
- Arkitektura Goi Eskola Teknikoa
- Arkitektura Saila

B.- MASTER PROPOSAMENA.

Arkitekturaren Oinarrietako Gradua eskuratzen dutenei arkitekto lanbide arautuan jardun ahal izateko behar duten gaikuntza emateko, gaitasun master hau eskaintzen da. Lanbide horretan jarduteko gaituko duen UPV/EHUko titulu bakarra izango da hau.

Aurreikusitako eskaera. Aurreikusten da master honetako ikasleak izango direla, batetik, gradua bukatzen duten ikasleen zati handi bat (kalkuluen arabera, graduaren egoera arautzen denean 120 bat pertsona titulatu dira urtero), eta, bestetik, beste unibertsitate batzuetatik etor daitezkeen tituludunak; horrek esan nahi du 80-100 ikasle berri sar daitezkeela urtean.

ARKITEKTURAKO GAITASUN MASTERRAREN PROPOSAMENAREN LABURPENA

2014ko apirilaren 9ko Eskola Batzarrean onartua

Kalitatearen gestioa. Gaitasun masterra izanik, ikastegiari atxikitako titulu bat da; hortaz, Arkitektura Goi Eskola Teknikoak berak gestionatuko du masterraren kalitatea eta bikaintasuna.

Nazioartekotze maila. Estatu mailako gaitasun masterra izanik, UPV/EHUko titulua da soilik. Hala ere, praktikak nazioarteko estudio edo enpresetan egiteko aukera egongo da.

Tituludunen enplegarritasuna. Master honek gradudunak gaituko ditu arkitekto lanbidearen arlo guztietan jarduteko (besteak beste, gradudunek arkitektura eta hirigintzako proiektuak sinatu ahal izango dituzte) eta horrek tituludunei erabateko autonomiarekin jarduteko ahalmena emango dienez, tituludunok lan merkatuan txertatzeko aukerak handituko ditu.

Eleaniztasuna. Titulu hau osorik emango da bi hizkuntza ofizialetan. Etorkizunean, egoerak horretarako aukera ematen duenean, masterraren kreditu batzuk edo guztiak ingelesez ere eskaini ahal izango dira.

C.- IKASKETA PLANA.

Gaitasun master hau ikasturte akademiko batean egin beharreko masterra da eta guztira 60 ECTS kreditu ditu.

- **30 ECTS kreditu** ikasle bakoitzak arkitekturako proiektu bat garatzeko izango dira. Proiektu horretan graduan eta masterrean lortutako gaitasun guztiak sartu beharko dira eta ikasleak arkitekturako egikaritze proiektu bat gauzatzeko gai dela erakutsi beharko du. Proiektu hori ikasturte osoan zehar egingo da eta, bukaeran, dagokion master tailerreko master amaierako lanen (aurrerantzean MAL) epaimahaiaren aurrean aurkeztuko da.

ARKITEKTURAKO GAITASUN MASTERRAREN PROPOSAMENAREN LABURPENA

2014ko apirilaren 9ko Eskola Batzarrean onartua

20 ECTS kreditu 3 master tailerreko eskoletarako izango dira (Ondarea, Birgaitzea eta Zaintza; Hirigintza, Paisaia eta Lurralde; eta Berrikuntza eta Ikerketa Sortzaileak). Kreditu guzti horiek tailer modalitatekoak izango dira (tailer industrial, gehenez 25 ikasleko taldeekin). Master tailer bakoitzean bi irakasgai emango dira, Proiektu Garapena eta Garapen Teknikoa izenekoak, eta horien eskola orduak, hurrenez hurren, 12 eta 8 ECTS kredituri dagozkionak izango dira.

- **10 ECTS kreditu** hautazkoak izango dira. Horiek lortzeko, bide desberdinak izango dituzte ikasleek: ikastegian ematen diren hautazko irakasgaiak egitea (hautazko 30 ECTS kreditu eskainiko dira guztira 3 master tailerretarako); kanpoko praktikak egitea arkitekturako estudioetan edo enpresetan (betiere ikastegiko tutore batek gainbegiraturuta); Masterreko Batzordeak adierazitako aukera askeko kredituak egitea, edo, halakorik egon ezean, batzorde horrek baliozkotutako kredituak izatea (adibidez, gaitasun master honekin lotura duten unibertsitate masterretako irakasgaien kredituak).

D.- PARTE HARTUKO DUTEN IRAKASLEAK.

Karrera Amaierako Proiektua, edo, bestela esanda, Master Amaierako Lana (MAL) aurkezten den Tailerraren Master Amaierako Epaimahaiko kide ez den Arkitektura Saileko edozein irakaslek MALa zuzentzeko lanak egin ahal izango ditu ikasleari lana nola bideratu behar duen adierazteko.

MALa Arkitektura Sailekoa ez den arkitekto batek ere zuzendu ahal izango du, baina kasu horretan sail horri atxikitako irakasle batek tutore lanak egin beharko ditu.

ARKITEKTURAKO GAITASUN MASTERRAREN PROPOSAMENAREN LABURPENA

2014ko apirilaren 9ko Eskola Batzarrean onartua

Hiru master tailerretako bakoitzak Arkitektura Saileko hiru irakaslek osatutako epaimahai bat izango du eta irakasle horiek dagokien tailerrean eskolak emango dituzte. Gainera, epaimahaian laugarren kide batek ere parte hartu ahal izango du, hain zuzen ere, erakunde profesionalek proposatutako izen handiko profesional batek.

Hautazko irakasgaiak emateko eta unibertsitateaz kanpoko praktika profesionaletako tutore lanak egiteko irakasleak ikastegian irakasten dutenen artetik izendatuko dira.

Ikastegiak egokitzen jotzen duenean, masterrean irakatsi ahalko dute beste ikastegi edo unibertsitate bateko irakasleek, edo izen handiko profesionalek, horretarako ezarritako prozedurarekin bat.

Masterreko arduradun bat egongo da, eskolako zuzendaritzak proposatu eta Eskolako Batzarrak (edo batzar horren batzorde iraunkorrak) izendatutakoa. Arkitektura Sailekoa izan beharko da eta masterreko lan guztiak koordinatuko ditu.

E.- ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK.

Momentuz ez da hitzarmenik egin erakunde laguntzaileekin.

F.- IKASKETA PLANAREN BATZORDEAREN ETA IKASTEGIKO BATZARRAREN ERABAKIA.

Proposamen hau Ikasketa Planaren Batzordeak onartu du aho batez 2014/04/03an.

Eskolako Batzarrak ere onartu du 2014/04/09.

**ARKITEKTURAKO GAITASUN MASTERRAREN
PROPOSAMENAREN LABURPENA**
2014ko apirilaren 9ko Eskola Batzarrean onartua

G. - ESKOLA ORDUEN LABURPENA.

IRAKASGAIA	MOTA	ECTS	SAILA	HIZKUNTZA
PROIETKU GARAPENA BIRGAITZE TAILERRA	URTEROA - TAILERRA NAHITAEZKOA	12	ARKITEKTURA	EUSKARA
DESARROLLO PROYECTUAL. AULA REHABILITACION.	URTEROA - TAILERRA NAHITAEZKOA	12	ARKITEKTURA	GAZTELANIA
GARAPEN TEKNIKOA BIRGAITZE TAILERRA	URTEROA - TAILERRA NAHITAEZKOA	8	ARKITEKTURA	EUSKARA
DESARROLLO TECNICO. AULA REHABILITACION.	URTEROA - TAILERRA NAHITAEZKOA	8	ARKITEKTURA	GAZTELANIA
PROIETKU GARAPENA PAISAIA TAILERRA	URTEROA - TAILERRA NAHITAEZKOA	12	ARKITEKTURA	EUSKARA
DESARROLLO PROYECTUAL. AULA PAISAJE.	URTEROA - TAILERRA NAHITAEZKOA	12	ARKITEKTURA	GAZTELANIA
GARAPEN TEKNIKOA PAISAIA TAILERRA	URTEROA - TAILERRA NAHITAEZKOA	8	ARKITEKTURA	EUSKARA
DESARROLLO TECNICO. AULA PAISAJE.	URTEROA - TAILERRA NAHITAEZKOA	8	ARKITEKTURA	GAZTELANIA
PROIETKU GARAPENA BERRIKUNTZA TAILERRA	URTEROA - TAILERRA NAHITAEZKOA	12	ARKITEKTURA	EUSKARA
DESARROLLO PROYECTUAL. AULA INNOVACION.	URTEROA - TAILERRA NAHITAEZKOA	12	ARKITEKTURA	GAZTELANIA
GARAPEN TEKNIKOA BERRIKUNTZA TAILERRA	URTEROA - TAILERRA NAHITAEZKOA	8	ARKITEKTURA	EUSKARA
DESARROLLO TECNICO. AULA INNOVACION.	URTEROA - TAILERRA NAHITAEZKOA	8	ARKITEKTURA	GAZTELANIA
1. HAUTAZKOA	URTEROA - TAILERRA HAUTAZKOA	10	ARKITEKTURA	EUSKARA
OPTATIVA 1.	URTEROA TAILERRA	10	ARKITEKTURA	GAZTELANIA
2. HAUTAZKOA	URTEROA - TAILERRA HAUTAZKOA	10	ARKITEKTURA	EUSKARA
OPTATIVA 2.	URTEROA - TAILERRA HAUTAZKOA	10	ARKITEKTURA	GAZTELANIA
3. HAUTAZKOA	URTEROA - TAILERRA HAUTAZKOA	10	ARKITEKTURA	EUSKARA
OPTATIVA 3.	URTEROA - TAILERRA HAUTAZKOA	10	ARKITEKTURA	GAZTELANIA

3 ERANSKINA

ESPEDIENTEAK LEKUZ ALDATZEKO ARAUTEGIA (2014-2015 IKASTURTEA)

ARKITEKTURA 2003ko PLANA

2014/2015 akademi ikasturtean ez da espedientea aldatzeko eskaririk onartuko, titulazioa ikasketa-plan honen barruan ikasi ahal izateko.

ARKITEKTURAREN OINARRIETAKO GRADUA

UPV/EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoan Arkitekturaren Oinarrietako gradua ikasteko xedez espedientea lekuz aldatzeko eskariak Ikasketen Gestiorako Araudiko 7. artikuluan, zehaztutako baldintza orokorrak bete beharko ditu bai eta ondokoak ere:

Gutxienez 60 kreditu baliozkotzeko moduan izatea.
Ikastegi honetan gutxienez 60 kreditu gainditzeko izatea.

Kredituak baliozkotzeko, beharrezkoa izango da ikastegiko akademia-antolakuntza eta baliozkotzeetarako batzordeak, baliozkotze eskaria jaso eta aztertu ondoren emango duen oniritzia eta espedientean baliozkotu gisa gehitzea.

2014/2015 IKASTURTERAKO KAPren EGUTEGIA (ESKOLA BATZARREAN ONARTUTA 2014/04/09)

	MATRIKULA	GAIA/ZUZENDARI ESKAERA	DEFENTSA ESKAERA	AURKEZPEN PUBLIKOA (PROIEKTUA ESKEGI)	AURREAURKEZPENEN ORDUTEGIA ARGITARATZEA	KALIFIKAZIOAK+ DEFENTSA ETA BERRIKUSKETEN ORDUTEGIEN ARGITARATZEA	PROIEKTUAREN JENDAURREKO DEFENTSA + BERRIKUSKETAK
2014 - IRAILA	AUTOMATRIKULA GARAIAN		Irailak 29(Astl) Irailak 30(Astr)				
2014 - URRIA		Urriak 6(Astl) Urriak 7 (Astr) Urriak 8(Asteaz)		Urriak 8(Asteaz)	Urriak 10 (Ostir)	Urriak 30 (Osteg)	
2014 - AZAROA							Azaroak 6 (Osteg)
2015 - OTSAILA	Otsailak 9 (Astl) Otsailak 10 (Astr) Otsailak 11(Asteaz)	Otsailak 9 (Astl) Otsailak 10 (Astr) Otsailak 11(Asteaz)	Otsailak 3(Astr) Otsailak 4 (Asteaz)	Otsailak 11(Asteaz)	Otsailak 13(Ostir)		
2015 - MARTXOA						Martxoak 5(Ostg)	Martxoak 12(Ostg)
2015 – EKAINA			Ekainak 8(Astl) Ekainak 9(Astr)	Ekainak 17(Asteaz)	Ekainak 19 (Ostir)		
2015 - UZTAILA						Uztailak 9 (Osteg)	Uztailak 16(Osteg)

AURREPROIEKTUAREN AURKEZPEN DEIALDIAK

DEIALDIA	AURREPROIEKTUAREN AURKEZPEN DATA
2014ko AZAROA (KAPa 2015eko ekainean aurkezteko asmoa dutenentzat gomendatua)	AZAROAK 18 (ASTEARTEA)
2015eko MARTXOA (KAPa 2015eko urrian aurkezteko asmoa dutenentzat gomendatua)	MARTXOAK 18 (ASTEAZKENA)
2015eko EKAINA (KAPa 2016ko otsailan aurkezteko asmoa dutenentzat gomendatua)	EKAINAK 16 (ASTEARTEA)